

PRENTSA DOZIERA

SARA


ikusimikusi

**EUSKAL-HERRI OSOA BATZEN DUEN
HAUR ETA GAZTE LITERATURA AZOKA**

www.ikusimikusi.eus
ikusimikusi@gmail.com



IKUSI MIKUSI -REN AURKEZPENA

Gaurdanik, halako azokarik ez zen behinere antolatua izan: euskal herri osotik (mugaren bi aldeetatik) gizarte zibila, irakaskuntza arloa eta profesionalak batzen eta lotzen dituen euskarazko haur literatura azoka.

IKUSI MIKUSI halako lehen azoka da!

Bistan da ezinbesteko euskal kultur hitzordu batzu badira : hala nola Durangoko azoka adibidez, baina bertan, euskaraz eta gazteleraz dagoen heldu eta gazte literatura badago, baita ere musika.

Bestalde, "haur eta gazte literaturara" azokak badira han ta hemen, "Petit Bouquinville" bezala adibidez Baionan, baina beraien eskaintza gehienak frantsesez dira, euskara apur batekin.

IKUSI MIKUSI, lehen EUSKARAZKO haur eta gazte literatura azoka da, eta behingoz, garatzen den euskal kultur arlo berezi hau plazara jalgitzen da.

Euskal gizartean dagoen eskas bat betetzera dator IKUSI MIKUSI, eta euskal kultura aberastera eta osatzera dator.

Hortaz Ikusi Mikusi ekitaldi berritzailea da, eta haur eta gazte literatura azoka ezinbesteko hitzordu kulturala bilakatzea du helburu.

Duela 40 urte Sarako Herriko Etxeak Idazleen Biltzarra antolatzen baitu, herri horretan sortu behar zen IKUSI MIKUSI.

Beraz gaur egun, SARA herria euskal literatura seaska bilakatzen ari da: urtean zehar 2 ekitaldi nagusi antolatuz: IKUSI MIKUSI haur eta gazte literatura azoka urrian, eta Idazleen Biltzarra, apirilan.



AZOKA BAT BAINO GEHIAGO... PUBLIKO GAZTEARI OSOKI EGOKITUA

IKUSI MIKUSI azoka bat baino gehiago da: literatura oinarri, aukera eta proposamen asko eskainiak dira.

Hala nola, ikuskizunak (literatura obretan oinarrituak), tailerrak, animazioak, idazle-illustratzaileekin topaketak, hitzaldiak, guztiak adinka antolatutak.

IKUSI MIKUSI bi egunez antolatzen da: eskolen eta profesionalen eguna, eta familien eguna.

Eskolak ez dira "kontsumitzaile" gisa heldu azokara, baina bai zinezko partehartzaile gisa: aurretik idatz edo arte lan bat egitea eskatua zaie, idazleekin topaketak aurretik prestatu eta landu behar dituzte, baita ere beraien hitz-hartzeak eta elkarrizketak.

Ekitaldi hau guztiz aurre-ikusia, gogoetatua eta diseinatuta da haurrentzat, bai altzarien aldetik, espazioen antolaketa aldetik, baita ere jarduerak eta programatutako tailer eta animazioen aldetik.

Forma ibiltariak Sara herri osoa zeharkatzen du, eta alderdi guztietan betetzen du jaialdiaren kontzeptua, familientzat pentsatua baita, atsedeen-puntuak eskainiz, ñiñien gunegokitu eta berezia antolatuz, eta kanpoko jolasak proposatuz...



PROIEKTUAREN HELBURUAK

Helburuak hauexek dira:

- Euskal haur eta gazte literatura, gaur egungo euskal kulturaren ardatz nagusietako bat plazara jalgitzea eta sustatzea, publiko orokorrari hobeto ezagutzera emanez.
- Ume ttikiak, haurrak eta gazteak, baita erakasleak, irakurtzeko, kondairak entzuteko, hitzekin jolasteko eta euskaraz idazteko aukera ematea, euskarazko albuma eta liburuen munduan murgilduz.
- Familiar, gurasoak beren seme-alabekin, euskal liburuen inguruan une goxo bat igarotzea, emozioak elkarrekin bizi ditzaten, albumek eskaintzen duten irakurketa eta idazketa jolasei esker.
- Euskal herri lurralde osoan, euskal haur eta gazte literaturarekin lotura duten egitura profesionalak argitan jartzea.
- Euskal haur literaturan idazle-ilustratzaile gazteek egindako sorkuntza eta proposamen berriak nabarmentzea.
- Euskal lurralde guztiaren egitura artistikoak nabarmentzea, zuzenezko ikuskizunak programatuz.
- Profesional guztien artean ezinbesteko den ekitaldi-topaketa sortzea, urtetik urtera ekitaldia garatuz.
- Euskarazko haur literaturaren garapena eta hazkundera sustatzea, literaturaren bidea hartuz.



HIRU JATORRIZKO PARTAIDEAK, SARAKO UDALETXEAREKIN

Sarako Herriko Etxea partaide nagusietako bat da, **beste hiru euskal kiderekin: MARI GORRI, GALTZAGORRI ELKARTEA, eta PAMIELA, hiruak haur eta gazte literaturan espezializatuak.**

Kide horiek MARI GORRI elkartearekin juntatuz proiektua sortu dute, ahaleginak eta ezagutzak kontzentratuz, euskarazko haur literatura ekitaldi hau, lurralde osoan gertaera kulturala nagusietako bat bilaka dadin, epe luzeran.



MARI GORRI Saran kokatua den elkarte da, eta haren ko-lehendakariak, Yolanda ARRIETA eta Pello AÑORGA idazle famatuak dira.

Bere zuzendari artistikoa, Amaia Hennebutte, euskarazko album idazle-illustratzailea da ere. Gainera, Galtzagorri elkarteko lehendakaria da ere. MARI GORRIren helburu nagusia (MARI GORRI, Marijane Minaberry-k idatzitako lehen ipuinaren izenburua da) haur eta gazte literatura garatzea da, IKUSI MIKUSI antolatuz.



GALTZAGORRI Donostian kokatua den 30 urte dituen elkarte da, euskal haur eta gazte literaturaren erreferentzia bilakatu dena Euskadin. Haur literatura sustatzen, zabaltzen eta garatzen du, gizarte zibilaren arlo guztiak sentsibilizatuz : egileak, idazleak, ilustratzaileak, profesionalak, familiak, eskola munduan haurrak eta irakasleak.



PAMIELA argitaletxea, Nafarroan kokatzen da, eta euskarazko lehen albumen edizioan aitzindaria izan da. Gaur egun, munduko klasiko ezinbesteko lanak euskaratu ditu. Literatura hau bultzatzen jarraitzen du, urtero, Etxepare saria irabazi duen liburua argitaratuz.

Bestalde, **Sarako Idazleen Bilzarrarekin** harremanetan gaude. Duela 40 urte beren ekitaldia antolatzen dutela Saran, eta haiekin lan egiten dugu: mutualizazioak eraikitzen, bai komunikazioa arloan, baita ere materiala eta laguntzaile arloetan.

IKUSI MIKUSI 2021 ETA 2022

IKUSI MIKUSI lehen edizioak 2021 eta 2022-ko urrian iragan ziren eta arrakasta handia bildu zuten. Euskal haur eta gazte literatura profesional guztiak, Euskal Herri osotik jinak (Iparraldea, Nafarroa eta Hegoaldea) presente ziren: euskal argitaletxeak, idazleak, ilustratzaileak, liburu-saltzaileak, liburuzainak, kondalariak eta artistak. Eskola askok parte hartu zuten, nahiz eta oztopo handiak izan 2021-an Covid krisa sanitarioarengatik, eta 2022-an, Euskal Herri osotik 1300 ikasle ta erakasle hurbildu ziren.

2021 eta 2022 IKUSI MIKUSI proposamenak:

- Ekitaldiaren bi egunetan, Euskal Herri osoko argitaletxeen presentzia: Pamiela, Elkar, Ibaizabal, Denonen artean, ZTK, Alberdania, Ikas, Gatuzain, Erein, Txalaparta...
- Familiar bizitzeko animazio-tailerrak, irakurketak, idazketa eta hitz-jokoak, guztiak adinen arabera antolatutak.
- Mintzaldiak eta hitzaldiak, profesionalek, idazleek eta ilustratzaileek eskainirik.
- Idazle eta ilustratzaileen sorkuntza berrien aurkezpenak.
- Ikasleek eramandako idazle-ilustratzaile galdezketak, telebista platoan.
- Ikasleek aurretik eskolan sortu dituzten obren erakusketa.
- Haur literatura obratik inspiratutako ikuskizunak, Euskal Herri osotik artista konpainiak programaturik.

Eskolen eguna, ostiralez:

Nahiz eta krisia sanitarioa betean izan, Euskal Herri osotik 800 bat baino gehiago ikasle eta irakasle hurbildu ziren azokara 2021-ean, eta 2022-an, **1300 ikasle eta erakaslek parte hartu zuten.**

Denek tailer edota ikusgarri batean (adin tarteen arabera antolaturik) parte hartu zuten, eta azokan aurkeztuak ziren liburu eta albumen aberastasunaz ohartu dira bertan.

Azokara etorri aitzin, ikasgela bakoitzak idatz edo lan grafiko bat sortu zuen : azokan bertan, beren obrak (eta besteenak) ikusi ahal izan zituzten erakusketa xokoan.

Horrela, eskolak ez dira kontsumitzaileak, baizik eta zinezko parte-hartzaileak.

Gainera, haur bakoitzak gehien gustukoa duen liburua erosi ahal izan du, 15 euroko bonoari esker !



Familien eguna, larunbatez:

Urte guziz, **familien egunean, Iparralde eta Hegoaldetik 800 bat baino gehiago pertsona hurbildu ziren.**

Familia eguna, euskarazko liburuaren inguruan, guraso eta haurren artean une atsegina da: umeentzako antolatutako liburu xokoetan denbora pasatu, argitaletxe standetan ibili, animazio-tailerretan parte hartu, irakurketaz eta idazketaz gozatu familian, idazle eta ilustratzaileek egindako mintzaldiak eta aurkezpenak ezagutu, egun osoan zehar ikuskizunak ikusi ... azkenean elkarrekin momentu gozagarriak pasatu euskaraz.

Erran gabe doa, komunikazioa eta bertako seinaleetika guztia, euskara hutsean zela.



Profesionalen arteko topaketak:

IKUSI MIKUSI lehen edizio horietan, argitaletxeek, idazleek eta ilustratzaileek beren publikoarekin topo egin ahal izan zuten. Bestalde, profesionalen artean izatea eta elgarren lanak trukatea aukera ederra izan zuten ere.

Hari beretik, **mahai-inguru profesionalak** antolatu ziren bertan, eta gai ezberdinak tratatu ziren : lehen urtean, haur eta gazte literaturaren egoera aipatu zen, eta bigarren edizioan, euskaraz sortu edota euskarara albumak itzuli gaia eztabaidatu zen.

Kanaldude telebistak zuzenean transmititu zituen mahain-inguru horietako eztabaidak.

Parte hartu zuten profesional guztiek baieztatu digute profesionalen arteko topaketak eta truketzeak biziki aproposak eta inportanteak zirela.



Proiektuaren eragina:

Energia, ilusioa eta emultsio handiak piztu dira hastapenetik IKUSI MIKUSI inguruan, azkenean gizartearen eskasa handiari erantzutzen dion ekitaldi hunen inguruan.

Hain zuzen ere, erakunde publiko askok harrera ona eman diete ekimen honi: Sarako herriak (antolaketa eta muntaketan biziki inplikaturak), EuroEuskaldea, hastapenetik biziki interesatua mugaz gaindiko lanarekiko, Euskal Hirigune Elkargoak, Euskal Kultur Erakundeak, 64 departamenduak, besteak beste.

Profesional guztiek, eskolek eta familiek beraien interesa azkarki erakutsi diote azokari, numbrean jnik, eta hedabideak presente ziren ere.

Haur literaturaren bidez, IKUSI MIKUSIk bateratzen du, eta euskal kulturaren aberastasuna agerian jartzen du.

IKUSI MIKUSI 2023, EDIZIO BERRIA

Lehen bi edizioetan, argiki agertu eta senditu da, hezkuntza, profesional, arte eta liburu munduengandik, baita ere familiengandik, ekitaldia iraunarazteko aldarrikapen zorrotza. Profesionalen arteko loturak eta trukaketak sakondu dira, eta horri esker 2023ko edizioa eta programazio berria gaur egun antolatzen da.

IKUSI MIKUSI 2023ko urriaren 20 eta 21an iraganen da.

Proiektuaren mamia atxikia da: azoka sartzea dohainik, ikuskizun eta tailer programazio zorrotza, ikasleei bonoen eskaintza, idazle-ilustratzaile eta artista berrien ezagutza, topaketa profesionalen garapena, partaide berrien bilaketa... haur literatura eta euskara oinarri.

Aurtengo berritasun nagusia EGUN PROFESIONALAREN sortzea da, ostiralean, eskolen egunean.

IKUSI MIKUSIk, beste euskal herriko euskara hutsezko azokekin, DOINUELE sorkuntzan parte hartu du.



Kalitatezko programazioa, oraino aberatsagoa:

- Urtero IKUSI MIKUSIk profesionaleri eta eskolei gai bat proposatzen die. 2023an **"ZURE MUGAZ GAINDIKO MUNDUA(K)"** da gaia.
- Aurten, babesleak **Ruper ORDORIKA eta Itxaro BORDA** ditugu, lehena, euskal abeslaria eta musikari ezagutua, eta bigarrena, euskal idazle famatua.
- **Ikasle bakoitzari 15 euroko bono banaketa atxikitzen da**, eta ezinbesteko helburu nagusia da IKUSI MIKUSIrendako. Aurten, iparraldeko udaletxe batzu engañatu dira, beraien umeen bonoak diruztatzeko.
- **PROFESIONALEI zuzendutako egun oso bat sortzen da, EKE, BILKETA eta E.H.U. partaidetzarekin.** Egitarau oso bat, liburuzain, erakasle eta liburu profesional guztiei zuzenduta antolatzen da, ostirala egunean : azken berritasunen aurkezpenak, artistekin topaketak, Galtzagorri elkarteko lan tresnen aurkezpenak, mahain-inguru eta eztabaidak, baita ere buruzko buruko topaketak, sortzaile eta argitaletxeen artean.
- **Adin tarteko guneak sortu dira : ñiñien xokoa, haur ttikien gunea, umeen gunea eta nerabeen gunea.**

2023, IKUSI MIKUSI AFITXA

SARA



ikusi Mikusi


HAUR ETA GAZTE LITERATURA AZOKA

2023

Urriak 20 & 21



ikusimikusi.eus



ELEMENTU OSAGARRIAK

- Dena dohainik da azokan : sarrera, aurkezpenak, tailerrak. Bakarrik ikuskizunak dira ordaindu behar (5€)
- Eskolen egunean, 1300 ikasle goaitatzen ditugu, lurralde guztietatik jinak: iparralde, Gipuzkoa eta Nafarroa.
- Ikasle bakoitzak 15€-ko bonoa eskuratuko du, gustukoa duen euskarazko iburua eskuratzeko.
- 15 euskal argitaletzek izena eman dute.
- 60 ikuskizun, tailer eta aurkezpen artistiko ezberdinak adinka antolatuak dira (ñiñiendako / ume txikiendako / haurrendako / nerabeendako), antzerki, txontxongilo erraldoi, musika... bi egunez.
- IKUSI MIKUSI, euskal herriko beste azokekin, DOINUELE sortzen du, euskara hustezko ekoizpenak plazaratzeko.
- Eskolek ekoiztutako obra guztien erakusketa bi egunez agerian jarrita, eta deneri zabaldua.
- Egun osoko egitarau berezia PROFESIONALEI zuzendua.
- 2023-an IKUSI MIKUSI SARA herria osoan zabaltzen da, forma ibiltaria ahal bezain bat garatuz. Ondorioz, Sara herria osoki hetsiko da zirkulazioari, eta familiak goxoki ibiltzen ahalko dira herrian zehar.
- Argitaletxe guztiak Lurberri gela espazioan instalatuko dira.
- 2023ko IKUSI MIKUSI osoa, bi egunez zuzenean filmatuko eta transmitituko du Kanaldude telebistak : obren aurkezpen guztiak, idazleen hitzaldiak, baita eskoletako topaketak eta emankizunak.



- Mugaz gaingiko hiru partaideen arteko elkarlana, MARI GORRI, PAMIELA eta GALTZAGORRIrena, sakontzen eta aberastuz doa, motibazio berri gogo handiarekin.
- Baionako Etxepare lizeoarekin sortutako kolaborazioa indartzen da, eta 2023an, hamabost bat gazte, ANIMAZIO PRO SAILEkoak, bezperatik jinen dira azokara muntaketan eta apainketan parte hartzeko. Eta eskolen egunean, biharamunean, ikasle guztien harrera egingo dute.
- Sarako elkarteekin partaidetzak azkartzen dira ere, adibidez Sarako haurzainekin ñiñien xokoa antolatzeko, baita beste elkarteekin ere, apainketan parte hartzeko, edota elikaduran

Partaidetza PUBLIKO eta PRIBATUAK

Hirugarren ediziorako, partaide publiko ainitz berriro engañatu dira, hala nola:

- SARAKo udaletxea,
- Euro Euskaldea Akitania-Nafarroa-Euskadi,
- Euskal Hirigunea,
- Euskal Kultur Erakundea,
- Departamendua,
- DRAC,
- hainbat lurraldeko udaletxe, beren haurrei bonoak eskaintzeko.

Euroeskualdeko sustengua azpimarratu behar da, laugarren aldikotz laguntzen baitute IKUSI MIKUSI, ezinbesteko laguntza halako mugaz gaindiko ekitaldi bat pizteko.

Partaide pribatu batzu ere berriro engañatu dira, IKUSI MIKUSI sustengatzeko, hala nola LYRA.

Bestalde, tokiko enpresa eta lantegi ainitzek IKUSI MIKUSI sustengatzera erabaki dute ere.

Literatura ezinbesteko hitzordu hau egonkortzeko, eta hirugarren IKUSI MIKUSI edizioa antolatzeko, xedeak, anbizioak eta gogo handiak dituzte partaide guztiek.

Gazteei euskarazko haur literaturaz gozatzeko aukera ematea, haziak ereitea da, baita gure kultura aberastea, gure haurrak, biharko sortzaileak eta idazleak baitira!



HARREMANA

Zuzendaritza artistikoa
Amaia Hennebutte
+33 (0)6 72 62 08 14

Koordinaketa
+33 (0)6 98 12 36 50
ikusimikusi@gmail.com

ikusimikusi.eus

The logo for 'ikusimikusi' features the word 'ikusimikusi' in a stylized, lowercase font. The 'i' and 'u' are orange, while the 'kusi' is blue. Above the 'i' and 'u' are three curved lines representing an open book. The 'M' in 'Mikusi' is larger and blue, with a white outline.